[redacted]

euskal trenbide sarea

# La nueva estación de Loiola coge forma con el montaje de las vigas que conformarán el vestíbulo

- **El Lehendakari Iñigo Urkullu ha visitado esta mañana las obras de nueva estación sobre el viaducto**
- **Con la eliminación del terraplén ferroviario Loiola ganará 10.000 metros cuadrados para uso y disfrute de la ciudadanía y desaparecerá la división del barrio**
- **Iñigo Urkullu: “un trabajo necesario, cercano y transparente es positivo, a pesar de las incomodidades, y más cuando se cuenta con la positiva aportación y participación de un vecindario como el de este barrio”**

**DSS 13 07 16**

El Lehendakari **Iñigo Urkullu** ha visitado esta mañana las obras de nueva estación y viaducto de Loiola coincidiendo con la fase de montaje de las vigas que conformarán el vestíbulo de la terminal ferroviaria que dará servicio a este barrio de la capital donostiarra y cuya puesta en servicio está previsto para el primer trimestre de 2017.

Urkullu ha estado acompañado por la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, **Ana Oregi**, el Alcalde **Eneko Goia**, el viceconsejero de transportes **Antonio Aiz,** la directora de Infraestructuras **Almudena Ruiz de Angulo, y** los directores de ETS y Euskotren **José Luis Sabas** e **Imanol Leza** en un recorrido que se ha prolongado por espacio de cuarenta minutos. También han asistido miembros de la Asociación vecinal *Loiola Bizirik* con quienes la dirección de obra mantiene una relación constante en cuanto a la información relativa al desarrollo de la obra y a su afección a las personas que residen en su entorno más próximo.

“Con la culminación de este proyecto financiado por el Gobierno Vasco se consigue un triple objetivo: mejora del servicio ferroviario; **mejora de la integración urbana del tren** a su paso por Loiola; y la dotación a Loiola con más de 10.000 metros cuadrados de nuevos espacios para uso público” ha indicado el Lehendakari.

El proyecto de urbanización del terreno recuperado para la ciudadanía y su financiación son fruto del acuerdo logrado por el Ayuntamiento de Donostia San Sebastián (legislatura anterior) y el Gobierno Vasco en el seno de la Comisión de seguimiento de las obras y proyectos del metro de Donostialdea.

Además de ser la conexión del vecindario de Loiola con el centro y resto de Donostialdea, la nueva estación se convertirá en el nexo del propio barrio, separado desde hace más de 100 años por las vías del tren. Gracias al diseño de la estación y del trazado en doble vía sobre un viaducto se sustituye el terraplén existente y se logra unir de forma definitiva la zona de Ciudad Jardín con el resto del barrio.

Urkullu ha puesto en valor que “el consenso entre instituciones es el camino a seguir. En este caso, fruto de una actuación eminentemente ferroviaria, se mejora también la habitabilidad de Loiola. Se habla, se debate y finalmente se acuerda como urbanizar una nueva zona que va a contar con zonas verdes, juegos infantiles, bidegorri, parking para bicicletas y zonas de descanso”.

La construcción de nueva estación y viaducto de Loiola tiene un presupuesto de 22,2 millones de euros, de los que el ayuntamiento aporta 1,1 millones de euros destinados exclusivamente a los trabajos de urbanización.

Euskal Trenbide Sarea (ETS), ente público del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco, dirige la ejecución de este proyecto cuya puesta en servicio -nueva estación- está prevista para la primera parte de 2017, aunque los trabajos de **urbanización** se prolongarán hasta mediados de ese mismo año.

Durante las obras se mantiene en todo momento el servicio ferroviario gracias a la construcción de la estación provisional en funcionamiento desde julio de 2015. El lehendakari **Urkullu** ha indicado que "la experiencia del Gobierno Vasco y la empresa pública de infraestructuras ferroviarias ETS en la construcción de la nueva estación de Loiola demuestra que un trabajo necesario, cercano y transparente es positivo, a pesar de las incomodidades que siempre genera cualquier tipo de obra. Lo es más cuando se cuenta con la positiva aportación y participación de un vecindario como el de este barrio".

## Situación de las obras

Hasta la fecha se han ejecutado las siguientes tareas:

- Construcción y puesta en servicio de la estación provisional
- Demolición de la antigua estación
- Desmontaje de la superestructura antigua
- Cimentaciones con profundidades que oscilan entre 35-40 metros para llegar a la roca
- Construcción de la estructura metálica del viaducto. Se construye en taller y se traslada por tramos (20 metros de longitud) a la obra para su posterior montaje sobre el terreno.

**Tareas a ejecutar hasta final de obra**:

- Finalización del montaje del viaducto, señalización, comunicaciones, energía, instalaciones para poder poner en servicio la nueva estación en el primer trimestre de 2017
- Desmontaje de la estación provisional y posterior demolición
- Finalización de fachada de la nueva estación y remates
- Excavación y urbanización de toda la zona hasta la conclusión definitiva de todos los trabajos previstos para mediados de 2017.

# Loiolako geltoki berria itxura hartzen doa, atondoa osatuko duten habeak jarrita

- **Iñigo Urkullu lehendakariak bide-zubi gaineko geltoki berria bisitatu du gaur goizean**
- **Loiolako trenbideko trintxera kenduta, 10.000 metro karratu irabaziko ditu biztanleen erabilera eta gozamenerako eta auzoaren zatiketarekin bukatuko da**
- **Iñigo Urkullu: "beharrezkoa, gertukoa eta gardena den lan oro positiboa da beti, eragozpenak gorabehera, eta are gehiago auzo honen bizilagunen ekarpen eta partaidetza positiboa bezalakoa izaten denean"**

**DSS 16 07 13**

**Iñigo Urkullu** lehendakariak Loiolako geltoki berriaren eta bide-zubiaren lanak bisitatu ditu gaur goizean, atondoa osatuko duten habeak jartzeko fasearen betetzearekin batera. Donostiako hiriko auzo honi zerbitzua emango dion trenbideko terminal berria 2017ko lehen hiruhilekoan jarriko da martxan.

Urkullurekin batera, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu **Ana Oregi**k, **Eneko Goia** alkateak, Garraio sailburuorde **Antonio Aiz**ek, Garraio Azpiegituren zuzendari **Almudena Ruiz de Angulo**k eta ETSeko eta Euskotreneko zuzendari **José Luis Sabas**ek eta **Imanol Leza**k berrogei minutu inguruko ibilbidea burutu dute. *Loiola Bizirik* Auzo Elkarteko kideek bisitan parte hartu dute ere. Izan ere, lanen zuzendaritzak harreman estua mantentzen du elkarte horrekin, lanen garapenaren eta geltoki ondoko bizilagunek paira ditzaketen kalteen inguruko informazioari dagokionean.

"Eusko Jaurlaritzak finantzatu duen proiektu hau burutzearekin batera helburu hirukoitza beteko da: trenbideko zerbitzua hobetzea; **trenaren hiri-integrazioa hobetzea** Loiolatik igarotzean; eta 10.000 metro karratu berri, erabilera publikoko gune berri ugari ematea Loiolari", adierazi du lehendakariak.

Euskal Trenbide Sarea (ETS) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Saileko erakunde publikoak proiektu honen gauzatzea zuzentzen du. Zerbitzuaren berrirekiera -geltoki berria- 2017ko lehen zatirako aurreikusita dago, **urbanizazio** lanak urte horretako erdialdera arte luzatuko badira ere.

Trenbideko zerbitzua uneoro mantendu da lanetan zehar, 2015eko uztailean martxan jarri zen behin-behineko geltokiaren eraikuntzari esker. **Urkullu** lehendakariak esan duenez, "Loiolako geltoki berriaren eraikuntzan Eusko Jaurlaritzak eta ETS trenbideko azpiegituretarako enpresa publikoak izan duten esperientziak frogatu duenez, beharrezkoa, gertukoa eta gardena den lan oro positiboa da beti, edozein lanak sortzen dituen eragozpenak gorabehera. Eta are gehiago, auzo honen bizilagunen ekarpen eta partaidetza positiboa bezalakoa izaten denean".

Loiola auzoa erdialdearekin eta Donostialdea osoarekin lotzeaz gain, geltoki berria auzo beraren lokarria bilakatuko da eta 100 urte luzez trenbideak sortu duen banaketarekin bukatuko du. Geltokia eta bide bikoitzeko trazadura bide-zubi baten gainean diseinatu zirenez, egungo trintxera desagerrarazi eta Lorategi Hiria behin betirako lotuko zaio beste auzo guztiari.

Eta egungo trenbideko trazadurak suposatzen duen **hirigintzako oztopo horren desagerpena**ri esker, hain zuzen ere, 10.000 m2 berri berreskuratuko dira erabilera

publikorako. Berdeguneak, haurrentzako jolasak, bidegorria, bizikletentzako aparkalekua, atsedenlekuak, biztanleen erabilera eta gozamenerako. Urbanizazio-proiektua eta bere finantzazioa Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Donostialdeko metroaren azterlanen eta proiektuen jarraipenerako eta koordinaziorako erakundeen arteko batzordearen baitan lortu duten akordioaren fruitu dira.

**Lanen egoera**

Ondoko egitekoak bete dira gaur arte:

- Behin-behineko geltokiaren eraikuntza eta martxan jartzea
- Geltoki zaharraren eraispena
- Gainegitura zaharraren desmuntatzea
- 35-40 metro bitarteko sakonera duten zimendatzeak, arrokaraino iristeko
- Bide-zubiaren metalezko egituraren eraikuntza Tailerrean eraiki eta zatika (20 metroko luzera) eraman da lanetaraino, lekuan bertan muntatzeko ondoren

**Gauzatzeke dauden egitekoak lanak amaitu arte**:

- Bide-zubiaren muntaketa, seinaleztapena, komunikazioak, energia, geltoki berria 2017ko lehen hiruhilekoan martxan jarri ahal izateko beharrezkoak diren instalakuntzak
- Behin-behineko geltokiaren desmuntatzea eta azken eraispena
- Geltoki berriaren aurrealdea bukatzea eta azken ukituak
- Ingurune osoaren indusketa eta urbanizazioa, aurreikusitako lan guztiak 2017ko erdialdera behin betirako bukatzen diren arte.